

Arte eta Natura Zikloa

Artearen bitartez ondareari buruzko irakurketa eta narratiba berriak



AURKEZPENA:

Arte eta Natura Zikloa Igartubeitiko Hezkuntza Proiektuaren barne sortzen da, Ondare kulturalari, naturalari, materialari, materia gabeari hurbiltzeko eta berau interpretatzeko modu berriak aztertzen duen gune gisa. Kultura garaikidearen eremuan, ondareari lotutako hezkuntza artistikoak diziplina artistiko ezberdinen eta geure ingurunearen arteko harreman, gurutzatze eta esperimenezio aukera berriak zabaltzen ditu.

Artea, ikaskuntza gune eta baliabide gisa, sormenarekin geure inguruko Paisaiara hurbiltzeko eta interpretatzeko baliagarria da.

Ziklo honek ingurunearekin harreman mota berriak aztertzen eta esploratzen ditu eta parte hartzaileen behaketa aktiboa eta kritikoa indartzen duten beste testuinguru bitartez, Igartubeiti Baserriko ondare baliabideen irakurketa berriak sortzen ditu.

HELBURUAK:

- Mezu eta ibilbide berriak sortzea ahalbidetuko duten ondarearekiko begirada berriak eragitea.
- Kultur garaikidearen testuinguruan arte eta naturaren arteko harremanak aztertzea artearen bitartez geure inguruarekiko aukera eta harreman berriak sortzea Ingurunearekiko behaketa aktiboa sustatzea.
- Ondare hezkuntzaren lan prozesuak eta metodologiak aztertzea
- Adierazpen artistikoen bitartez, Igartubeiti baserriko baliabideetara eta bere ingurunera hurbiltzea.
- Eremu artistikoaren eta ondare eremuaren arteko lan prozesuak eta metodologiak aztertzea.

HARTZAILEAK:

Publiko mota ezberdinekin lan egiten duen gartubeitiko hezkuntza Proiektuaren barne, ziklo hau familiei eta gazteei zuzendua dago.

Giza aldaketarako konektore gisa museoak duen garrantzia eta papera kontutan izanik, museoetako begiraleei, hezitzaileei heziketa berezia eskaini nahi diegu. Kultur bitartekoek, publikoekin zuzenki harremana dutenek, bere inguruneaz arduratzen diren pertsona kritikoak hezten funtzesko papera betetzen dute.

ESPERIENTZIAK ETA PRAKTIKAK / 2013:

4-12 urte bitarteko haurrentzako famili tailerrak (Kasu batzuetan, tailer motren arabera gurasoen partaidetzarekin).

- *Mundua miniaturan*, Isabel Herguerak eta Jose Belmontek eskainia. ARTE PLASTIKOAK
- *Euskal Herria euripean*, Musikoporrak sormen elkartearen eskutik. SOINUA
- *Sormen arkitektura tailerra*, Maushaus-ek eskainia. ARKITEKTURA
- *Album ilustratua*, Galtzagorri elkarteko Aitziber Alonsok eskainia. ILUSTRAZIOA
- *Garai hartan*, arkitektura tailerra, Maushaus-en eskutik. ARKITEKTURA

Gazteentzako tailerrak: 12tik 18 urteetara (Batxilergo artistikoa)

- *Ondarea agertokira*, animazio esperimentaleko sortze-tailerra Isabel Herguerak eta Jose Belmontek eskainia. ANIMAZIOA
- *Begia begiaren barruan: paisaia eta kamara ezkutua*, Asier Gogortzaren eskutik. ARGAZKILARITZA

Mundua miniaturan, Isabel Herguerak eta Jose Belmontek eskainia. ARTE PLASTIKOAK



Mundua miniaturan tailerrean partehartzaileek, ume zein gurasoek, Isabel Herguera eta Jose Belmonteren azalpenak entzun ondoren, 6 taldeetan banatuak paisai eta hiri animatuak sortu zituzten, Igartubeiti inguruan bildutako natur elementuekin, material berziklatuekin, buztinarekin, margoekin... Ondoren, sei sorkuntzak bildu eta mundu bat osatu zuten.

Euskal Herria euripean, Musikoporrak sormen elkartearen eskutik. SOINUA



Euskal Herria Euripean tailerrian, umek urarekin egin daitezkeen soinu desberdinak sortu dituzte. Uraren soinuak sortzeko joku desberdinak egin dituzte: edalontzi ezberdinak urez bete eta abestiak jo, plastikoarekin naturaren ahotsak imitatu (ekaitza, trumoa, euri tantak) eta abar. Azkenik eskulan bat egin dute partaideek. Kristalezko ontzi bat musika notez apaindu, urez bete eta putz eginez musika instrumentu bat sortu dute, etxera eramateko.

Sormen arkitektura tailerra, Maushaus-ek eskainia.
ARKITEKTURA




Arkitektura tailerra: Parte hartzaileek Igartubeiti baserriko eraikuntza gidatzen duten oinarri arkitektonikoak ezagutuko dituzte, batez ere eraikuntzari dagozkionak, ondoren, baserrien eskemak egiteko eta lursailletara egokitzeko.

Album ilustratua, Galtzagorri elkarteko Aitziber Alonsok eskainia.
ILUSTRAZIOA



Nola sortu album ilustratua: Parte hartzaileek zenbait album ilustratu eta hauen sormen prozesua ezagutu dute. Ondoren, natura irudikatzen duten album ezberdinak sortu dituzte. Taldeka Anjel Lertxundiren *Zazpi Oilasko* ipuinean oinarrituako albuma sortu dute. Taldeko kide bakoitzak albumeko orrialde bat osatu du denak bilduz eta guztion artean albuma eratuz.

Ondarea agertokira, animazio esperimentaleko sortze-tailerra
Isabel Herguerak eta Jose Belmontek eskainia. **ANIMAZIOA**



Urretxuko Garaialde Lizeoko 12-18 urte bitarteko dozena bat gaztek **Ondarea agertokira** animazio sorkuntza tailerlean, Isabel Herguera eta Jose Belmonte animatzaile eta artisten azalpenak entzun ondoren, paperezko tira batzuetan beraien marrazkiak egin zituzten, ondoren, zinema aurreko zootropoan eta praxinoscopioan efektu ezberdinak frogatzeko. Bestalde, Igartubeiti inguruneko zenbait materialekin, harriekin, hostoekin eta makilekin, animazio bat ere sortu zuten “stop motion” programaren bitartez.

Begia begiaren barruan: paisaia eta kamara ezkutua, Asier Gogortzaren eskutik.
ARGAZKILARITZA



Begia begiaren barruan kamera iluna eta paisaia tailerrea baserriko 3 logelak kamara ilun erraldoietan bihurtu zituen Asier Gogortzak. Logela bakoitzeko lehiatilak estali ondoren, zulo txiki bat utziz. Logelak ilunpean, bertako paretetan ikusten zen kanpoko paisaia, zuhaitzak, baserriak eta abar. Paisaia hauei argazkiak atera eta ondoren, modu tradizionalen errelebatu zituzten partaideek.